



Ingreso Mínimo Vital, una oportunidad perdida

Desde el sindicato ESK y la Plataforma contra la Exclusión Social Argilan-ESK consideramos que, con la aprobación del Real Decreto-ley que regula el Ingreso Mínima Vital, el Gobierno sostenido por la coalición PSOE-Unidas Podemos ha dejado pasar una oportunidad histórica para avanzar la erradicación de la pobreza y la exclusión social en el conjunto del estado español.

Del dicho al hecho hay un gran trecho, así reza el refrán que mejor refleja el contenido de Real Decreto-Ley aprobado por el Consejo de Ministras y Ministros, por lo menos si lo comparamos con las declaraciones grandilocuentes con las que ha sido anunciado.

Este Ingreso Mínimo Vital lejos de contribuir a la justicia social y a la dignificación de las condiciones de vida de las personas empobrecidas continúa reforzando el vínculo entre pobreza y criminalidad. Esta prestación, de nombre grandilocuente pretende cubrir unos mínimos pero no sostendrá las vidas de quienes la cobren, va a ir acompañada de toda una batería de medidas de control. Medidas, que parecieran decirnos al conjunto de la población que la gente pobre disfruta defraudando, no como esos prohombres que, mientras practican con intensidad la elusión y evasión fiscales, donan mascarillas y respiradores.

El Ingreso Mínimo Vital, además, va a tener un grado de cobertura más que escaso. Además de todas las personas menores de 23 años que quedan excluidas, de las millones de personas condenadas a una situación administrativa irregular por la injusta la Ley de Extranjería excluidas también, la larga lista de exclusiones y los interminables y complejos requisitos conllevarán que, a la hora de la verdad, muchas personas precarias y en situaciones de necesidad no puedan acceder.

El Ingreso Mínimo Vital, 462€ al mes para una persona que viva sola, y eso si es que llega a cobrarla, no son una herramienta con la pobreza. 462€ no van sacar a nadie de la miseria ni de la precariedad vital. Con 462€ al mes lo que sí consiguen es tranquilizar la conciencia del mal gobernante, diciéndose a sí mismos que la gente, por lo menos, no se morirá de hambre.

Llevamos semanas asistiendo a un baile de cifras que nos dice que van a acceder cientos de miles de personas pero, lo que no nos cuentan es que, a falta de concretar los números reales, no llegará ni a la cobertura del total de personas en situación de pobreza extrema. **De nuevo eligen parchear en lugar de transformar y no**

podemos estar de acuerdo con eso. Nos parece un acto cobarde y una verdadera oportunidad perdida.

El Ingreso Mínimo Vital de este gobierno que se autoproclama de izquierdas y de progreso, obvia el fracaso histórico y el conjunto de problemas que todas las políticas de pobres acumulan. No sólo las ignora, sino que profundiza en ellas, legitimando argumentos que sostienen el odio al pobre que dicen querer combatir. Esta propuesta de renta mínima, obvia las luchas y reivindicaciones que los colectivos sociales y sindicales de Euskal Herria (también en otros territorios y naciones del estado) hemos desarrollado contra rentas como la RGI en la CAPV o la RG en Nafarroa.

ESK y Argilan-ESK, desde nuestra realidad más cercana vemos, además, con mucha preocupación esta norma estatal que deberá ser convalidada por el congreso de los diputados en la medida en la que **sienta unas bases escasas, débiles y muy problemáticas para poder avanzar en la pelea por una Renta Básica Incondicional**. De ser aprobada tal y como el gobierno la plantea va a ser utilizada, a nadie le quepa duda de ello, para que en la CAPV el PNV retome con ansias renovadas su proyecto de recorte de la RGI. Además, esta medida va a profundizar en situaciones de sobra conocidas por nosotras en las que el sistema que dice proteger es el que maltrata a las personas en situación de pobreza.

Euskal Herria, 29 de mayo de 2020

ESK Sindikatua / Argilan-esk



Bizitzeko Gutxieneko Errenta, galdutako aukera

ESK sindikatutik eta Bazterkeriaren Aurkako Argilan-ESK plataformatik, uste dugu Bizitzeko Gutxieneko Errenta arautzen duen Errege Lege Dekretua onartuta, PSOE- Unidas Podemos koalizioaren gobernuak aukera historikoa galdu duela Espainiako Estatu osoan pobrezia eta bazterkeria soziala desagerrarazteko bidean.

Esana da erraz, eta egina garratz. Ondo baino hobeto islatzen du esaera horrek Ministroen Kontseiluak onartutako Errege Lege Dekretuaren edukia; behintzat, iragarri zuten adierazpen handinahiekin alderatzen badugu.

Bizitzeko Gutxieneko Errenta honek, justizia soziala lortzera bidean eta pobretutako jendearen bizimodua duintzea helburu, pobrezia eta kriminalitatearen arteko lotura indartu baino ez du egiten. Izen handiko prestazio horren helburua gutxieneko batzuk asetzea da, baina ez du prestazioa jasoko dutenen bizitza sostengatuko, eta kontrolneurri andana ekarriko du berarekin. Neurri horiek ikusita, badirudi uste dutela pobreek iruzur eginez gozaten dutela, zerga-ihesa gogor praktikatzan duten eta maskarak eta arnagailuak ematen dituzten gizon handi horiek ez bezala.

Gainera, Bizitzeko Gutxieneko Errentak estaldura-maila oso eskasa izango du. Baztertuta geratuko diren 21 urtetik beherako pertsona guztiez gain, eta Atzerritarren Lege bidegabearen ondorioz egoera administratibo irregularrera kondenatutako milioika pertsonen gain, bazterketa zerrenda luzeen eta baldintza amaigabe eta konplexuen ondorioz, berez, egoera prekarioan dauden eta premia daukaten pertsonen ezin izango dute laguntza eskuratu.

Bizitzeko Gutxieneko errenta 462€-koa da bakarrik bizi den pertsona batentzat, baina ez da nahikoa pobrezia-aren kontra; hori, jakina, errenta jasotzea lortuz gero. 462€-k ez dute inor miseriatik aterako, ezta bizimodu prekariotik ere. Hilean 462€-rekin agintari txarren kontzientzia lasaitzen dute, eta horrela, beren buruari esaten diote jendea, behintzat, ez dela gosez hilko.

Asteak daramatzagu zifra-dantzari begira, eta prestazioa ehunka mila pertsonak eskuratuko dutela esaten digute. Baina kontatzen ez digutena da zenbaki errealak zehaztu ezean, errenta ez dela iritsiko muturreko pobrezia-egoeran dauden pertsonengana ere. **Beste behin ere, nahiago dute adabakiak jarri egoera eraldatu beharrean, eta ezin dugu horrekin bat egin. Jarrera koldarra iruditzen zaigu, eta benetako aukera bat galtzea.**

Bere burua ezkertiar eta aurrerakoi deitzen duen gobernu honen Bizitzeko Gutxieneko Errentak ez du porrot historikoa ikusi nahi, ezta pobreei zuzendutako politika guztien arazoak ere. Gainera, arazo horiek ez ikusteaz gain, areagotu egiten ditu, eta ezabatu nahi omen duten pobreen aurkako gorrotoari eusten dioten argudioak legitimatzen dituzte. Gutxieneko errentaren proposamen honek ez ditu kontuan hartzen Euskal Herriko (baita Estatuko beste lurralde eta nazio batzuetakoak ere) kolektibo sozial eta sindikalek EAEn DSBEaren edo Nafarroako errenta bermatuaren arloan garatu ditugun borrokak eta aldarrikapenak.

ESK eta Argilan-ESKtik, gure errealitate hurbilenetik, kezka handiaz begiratzen diogu Estatuko arau honi, diputatuen kongresuak onartu beharko duena. Izan ere, **oinarri eskasa, ahula eta oso problematikoa ezartzen du Oinarrizko Errenta Unibertsalaren aldeko borrokan aurrera egin ahal izateko**. Gobernuak proposatu bezala onartuz gero, zalantzarik gabe, EAJk DSBEa murrizteko proiektuari irrika berriaz ekingo dio EAEn. Gainera, neurri honek okertu egingo ditu ezagutzen ditugun zenbait egoera; izan ere, pobrezia-egoeran dauden pertsonak babesten dituela dioen sistema bera da gaizki tratatzen dituen.

Euskal Herria, 29 de mayo de 2020

ESK Sindikatua / Argilan-ESK